

## **Bizitzaren amaieran genero-indarkeria arintzeko lehen gida argitaratzea**

Datorren martxoaren 8an emakumearen nazioarteko eguna ospatzen dela eta, Matia Fundazioak bere webgunean (<https://www.matiainstituto.net/eu/argitalpenak>) **bizitzaren amaierako genero-indarkeria arintzeko gida** bat argitaratuko du ostiralean.

Matia Fundazioko arreta psikosozialeko taldeak, gaixotasun aurreratuak dituzten pertsoneri eta haien familiei arreta psikologikoa eskaintzen duen taldeak, egin du lan hori. Izan ere, egiaztatu da tratu txar historikoko harremana duten familietan, tratu txarrak gaixotasunean ere dirautela, eta une horretan familiak duen gaixotasun larriaren ondoriozko arazoekin bat egiten duela.

Matia Fundazioko arreta psikosozialeko taldeak aipatzen duen egoera ohikoenetako bat **tratu txarren biktima den emakume batena da, larriki gaixorik dagoen senar erasotzailearen zaintzaile nagusi bihurtzen dena**. Hala ere, badira kasuak non erasotzaileak biktimaren zaintzailea bihurtzen den.

Egoera horien ondorioz, Matia Fundazioko talde psikosozialak hausnartu zuen **familia horiek zer premia berezi zituzten** eta nola egokitu behar zuten bere lana, inplikaturako pertsona guztien segurtasuna bermatuz. Argitaraturako material profesionalik ez zegoela ikusi zuten, eta, beraz, beren gida propioa sortzea erabaki zuten.

Gida honen helburua da genero-indarkeriako egoerek eragiten duten sufrimendua murrizten laguntzea, eta gaixotasun aurreratuak dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalak prestatzea eta orientatzea ere, kasu horietan ahalik eta arretarik onena ematen jakin dezaten.

**Gaiari buruzko elkarrizketa bat egiteko edo informazioa zabaltzeko interesa baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan:**

Gorka Alias. Matia Fundazioko komunikazio-arduraduna. 636 019 170

Silvia Turné. Matia Fundazioaren prentsa-kabinetea. 616 11 25 80